

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK

LORENZO ZUBILLAGA GOICOECHEA
MARIA CRISTINA VAL SARDÓN
AITZIBER OTAMENDI ECHARRI
IÑAKI ELIZALDE ZUBILLAGA
NEREA YEREGUI BALDA
IGOR OTERMIN EGUIA

BERTARATU EZ DIRENAK

ANDER PRADOS OTAMENDI

IDAZKARIA

Joanes Aleman Ollo

Betelun, udaletxeko bilkura gelan, 2025eko abenduaren 30ean goizeko hamabiak eta laurden direnean, Lorenzo Zubillaga Goicoechearen jaunaren lehendakaritzapean eta egintzaren fede ematen duen Joanes Aleman Ollo idazkariak lagundurik ondoan aipaturiko zinegotziak elkartu dira.

Udal bilkura dagokion deialdiaren ondoren egin da, erreglamentuan ager den aurrerapenarekin eta deialdia beraren eta gai zerrendaren ale bat udaletxeko iragarki oholean iragarri ondotik.

Ohiko izaera duen bilkura irekirik eta lehendakaritzak publikoa dela esanik; Idazkariak bilkura hasteko behar den zinegotzi kopurua bertaratu dela egiaztaturik; gai zerrendan diren ondoko puntuak aztertzeari ekin zaio.

1. 2025-11-25EKO UDAL BILKURAKO AKTAREN ONARPENA

Deialdiarekin batera banatu den 2025-11-25eko bilkurako aktaren inguruan udalbatzako kideren batek zerbait esateko duen galdetu du lehendakariak.

Zinegotzi bakar batek ere ez du deus adierazi.

Lehendakariak akta bozkatzera ekarri eta udalbatzak aho batez onartu du.

2. ALKATEAK EMANDAKO EBAZPENAK:

1. Juan Manuel Garmendia

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2025eko azaroaren 27an, 88/2025 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Juan Manuel Garmendia Goikoetxea jaunari jarduera sailkatuetarako lizentzia ematea, abenduaren 16ko 17/2020 Foru Legearen 3. Eranskineko 15.5 taldean dagoen eta Beteluko Atabalenea etxean (1. Poligonoko 12. Lursaila) kokatzekoa den jarduera honetarako: Landa ostatua.

2.- Ikai Tecnologías Avanzadas SL

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2025eko abenduaren 10ean, 89/2025 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Ikai Tecnologias Avanzadas SLri Beteluko Araxes eskuldeko Eskola publikoan antena gehigarri bat kokatzeko lizentzia ematea.

3. Ordainketa agindua

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2025eko abenduaren 15ean, 90/2025 Ebazpena onartu zuen. Gaia: 2025eko azaroaren 25ean egindako osoko bilkuran onartu ziren fakturak ordaintzea.

3. BETELUKO UDALAK « ASISTENCIAL VILLA DE BETELU, SA »REN KAPITAL SOZIALEAN DUEN PARTE HARTZEA HANDITZEA

"Beteluko Udalaren Osoko Bilkurak 1999ko abenduaren 29an egindako bilkuran erabaki zen Beteluko Udala, Recursos Asistenciales S.A. eta Gestión Asistencial S.A.ren artean" ASISTENCIAL VILLA DE BETELU S.A." eratzea. Sozietate horrek kudeatuko zuen Betelun kokatuko den Amma Betelu izeneko Hirugarren Adinekoentzako Egoitza Integrala.

1999ko abenduaren 31n, Francisco Salinas Frauca Iruñeko notarioaren aurrean emandako eskritura publiko bidez, 3.338 protokolo zenbaki duena, "Asistencial Villa de Betelu, S.A." merkataritza konpainia sortu zen.

Beteluko Udalak % 34arekin parte hartzen du "Asistencial Villa de Betelu, S.A."ren kapital sozialean.

Planiger SAK "Asistencial Villa e Betelu SA"n sozietatean duen parte hartzea (kapital sozialaren %66a) uzteko asmoa du.

Sozietatea ixteak lekarkeen galera bai lanpostuen aldetik bai eta ematen duen zerbitzuen aldetik

Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 7. Artikuluaren e) atalaren arabera lege horretatik kanpo daude baloreak edo beste finantza tresna batzuk jaulki, erosi, saldu edo eskualdatzearekin lotutako finantza zerbitzuei dagozkien kontratuak, finantza tresnen merkatuei buruzko Europako arudi indardunari jarraikiz.

Udalbatzak, aho batez erabaki du:

LEHENENGOA: Planiger SAri "Asistencial Villa de Betelu SA" sozietatean dituen akzioak (73.339 akzio osotara) erostea euro bateko prezioan.

Honela bada Asistencial Villa de Betelu SArekin kapital sozialaren %100 izanen du Beteluko Udalak.

BIGARRENA: Ahalmena ematea Lorenzo Zubillaga Goicoechea alkateari, Beteluko Udalaren izenean, erabaki honetatik eratortzen diren agiri guztiak sinatzeko eta formalizatzeko.

4. RED EXPLORAN PARTE HARTZEKO ESKAERA.

Beteluko Udaleko alkateak azaldu duenez, Nafarroa Ezagutu Sarea (Red Explora) Nafarroako naturagune babestuen, espazio berezien eta erabilera publikoko ibilbideen entitate kudeatzaileek osatutako elkarte da, esperientziak trukatzeko, sareko lana egiteko edo baliabideak optimizatzeko topagune gisa erabiltzen dena.

Nafarroa Ezagutu Sarea naturaguneen, espazio berezien eta ibilbide publikoen 70 kudeatzaile baino gehiago biltzen dituen elkarte bat da. Kudeatzaile horien artean daude, Nafarroako Gobernuaz gainera, tokian tokiko erakundeak, toki-ekintzarako taldeak, turismo-partzuergoak eta irabazi-asmorik gabeko elkarteak.

Hau dena ikusita udalbatzak ondokoa onartu du:

Lehenengoa: Nafarroa Ezagutu Sareko partaide izateko eskaera egitea.

Bigarrena: Lorenzo Zubillaga Goicoechea alkatea izendatzea Beteluko Udalaren ordezkari eta kontaktua.

Batzarrera etorritako guztiek, aho batez, akordioa onartu dute.

5. FAKTUREN ONESPENA

	KONTZEPTUA	ZENBATEKOA
Ofico	F. 254582	151,15 €
Iraola Artea	F-2025/1.691	244,12 €
Correos	F. mailing contadores	22 €
Vodafone	F. azaroa	212 €
Iberdrola	Urberoa 2025-10-30 2025-11-27	6,97 €
Iberdrola	Argiztapen publikoa 2025-10-30 / 25-11-27	373,15 €
Iberdrola	Argiztapen publikoa 2025-10-30 / 25-11-27	752,22 €
Iberdrola	Udaleko pisua 2025-10-30 2025-11-28	10,15 €
Animsa	F. A364	140,49 €
Monkaval	F.364	1.542,75 €
Venus Campos Walsh	F. DFA 50	2.833,41 €
IDM life Saving equipamente	F. 2225	131,07 €
Goienet	F. Eskola	980,95 €
Goienet	F. Udaletxea	971,70 €
Rodriguezpeleta	F. aerotermia	6.849,16 €
Ascensores Arga	F. 11987 mantenua	203,28 €

Ascensores Arga	F. 11985 koponketa	62,92 €
Codisna	F. 25.667	199,65 €
Vizcaina petroleros	F. G5-4487	3.139,95 €
Wikai	F. azaroa	112,10 €
Angelines Carrillo Ruiz	F. A19	90 €
Suministros Moncayo	F. E25/884	274,43 €
Animsa	F. SA 54	26,62 €
Leroy Merlin	F. Udaletxeko estufa,...	71,44 €
Orona	F. 2505014292	413,03 €
Ofico	F. 255020	127,32 €
Lorenzo Otamendi Artola	F. 1143	126 €
Bitorianea CB	F. 13/25	1.392 €
Rekalde Zurgindegia	F. 756-25	258,07€
Rekalde Zurgindegia	F. 762-25	3.697,43€
Rekalde Zurgindegia	F. 764-25	822,80€
Rekalde Zurgindegia	F. 765-25	36,30€
Rekalde Zurgindegia	F. 763-25	435,60€
Miguel Ramon Olano Zabaleta	F. 83/2025	94,38€
Miguel Ramon Olano Zabaleta	F. 82/2025	96,80
Miguel Ramon Olano Zabaleta	F.84/2025	251,68€
SORGINTXO HAUR ESKOLAKO LEHEN ZIKLOA		
Kide Aholkularitza	F. 2352 azaroa	358,77 €
Maite Garcia	F. A1/361	938,60 €
Rosa Estanga Arrizurieta	F. sorgintxo janaria azaroa	61,60 €
Rosa Estanga Arrizurieta	F. Sorgintxo garbiketa azaroa	9,75 €
DENETARA:		26.804,61€

Lehendakariak fakturak bozkatzera ekarri eta udalbatzan diren kide guztiek aho batez onartu egin dituzte.

6. GALDERAK ETA ESKAERAK

Ez da ez galdera ez eta eskaerarik egin.

Goizeko ordubata laurden gutxi direnean, bilkura amaitu eta altxatu egin da, idazkaria naizen honek ziurtatzen dudana.